

ADOSTUTIA

Kataluniako parlamentuak independentziaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, UDAL HONEK honakoa adierazten du:

- 1.- Aitortza, errespetua eta afektua erakutsi nahi dizkio Kataluniako errepublikari.
- 2.- Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.
- 3.- Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei eta alderdi politikoei. Eta modu berezian azken urteetan Giza Eskubideak, bakea, demokrazia eta askatasuna defendatuz izugarritzko ausardia eta konpromisoa erakutsi duten hautetsi guztiei. Eredu dira guretzat.
- 4.- Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea. Horregatik, eskatu nahi die euskal alderdi politikoei akordio batera iris daitezela eskubide hau legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren autogobernu ponentzian jasotzeko.
- 5.- Zeharo deitoratzen du Espainiako Senatuak konstituzioaren 155. artikulua indarrean jarri izana herritar katalanek eta beren ordezkariak hartutako erabaki demokratiko bat bertan behera uzteko helburuarekin.
- 6.- Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko udalerrien elkartera (AMI) igortzea.

Tolosa, 2017ko urriaren 31a.